20 05

MUNOGAÑAKO GOTORLEKUA

Dokumentatu gabeko gotorlekua da. Ziur aski, azken karlistadan eraiki zuten izen bereko mendian, Iruneko udal mugartean (Gipuzkoa). Adierazi behar da karlistadari buruzko dokumentazio zehatzak ez duela gotorleku hau aipatzen, beraz, hipotesi hau kontu handiz hartu behar da.

Planta karratuko ustezko parapeto batek eraikita dago, 24 m albokoa, 2 m zabalerakoa eta 0,5-1 m altuerakoa (gaur egun). 3 m inguruko zabaleradun zulo batek perimetro osoa inguratzen du, haren malkarrak ezponda itxura duela. Parapetoaren gailurraren eta zuloaren hondoaren arteko kota aldea 3 m ingurukoa da. Kontraeskarpak, baita ezponda itxuraduna ere, zuloaren hondoarekiko batezbesteko 1,5 metroko kotaren aldea dauka.

Gaur egun, iratzeek, zuhaixkek eta zuhaitzek gotorlekuaren ingurua inbaditzen dute (bereziki haritzak eta urkiak) eta hura ez da ondo atzematen ohiko ortoargazkiaren bidez (1956ko B amerikar hegaldian nahiko ondo ikusten da).

GeoEuskadi gunean eskaintzen duen Itzalen Mapari esker, eratorritako kartografia menuan, nahiko ondo ikus daiteke estalki begetalpean zer dagoen eta horregatik adibide hau adierazi da.

LIDAR (Laser Imaging Detection and Ranging) teknologiari esker, zehaztu daiteke laser igorle batetik objektu edo azalera baterainoko distantzia, pultsatutako argi-sortaren bidez (pultsu bakoitzak segundo zatiki bat irauten du). Seinaleko “erreboteari” esker, beste informazioak lor daitezke, talka egiten duen azaleraren arabera aldatuz joango baita.

MDT, Modelo Digital del Terreno izendapenaren akronimoa (Lurraldeko Eredu Digitala), aldaera kuantitatibo eta jarraituaren antolaketa espaziala irudikatzen duen datuen egitura numerikoa da.

Lurraldeko Eredu Digitalaren aldaera ezagunena (MDT) Modelo Digital de Elevaciones (MDE) da (Gorapenen Eredu Digitala), eta “hutsik” dagoen lur azalerako gorapenaren aldakuntzak digitalki irudikatzen ditu (begetazioa, eraikuntzak, eta abar izan ezik). Sarritan, MDT eta MDE, praktikan, sinonimotzat jotzen dira.


Beste MDT mota bat (bere adiera generikoan kontuan hartuta) Modelo Digital de Superficie (MDS) da (Azalerako Eredu Digitala) eta paisaiaren goialdeko gorapenaren aldaerak deskribatzen ditu, begetazioaren altuera, azpiegiturak eta lur azaleraren beste elementuak barne.

Ez duenez begetazioa barne hartzen, MDT ereduan ustezko gotorlekua bezalako egiturak erraz asko ikus daiteke. Horretarako, tratamendu informatiko baten bidez, itxurazko argiztapena ematen zaio, hura irudikatzeko itzal egokiak eragiteko helburuarekin, 3D faltsu bat sortuz.

Gehiago jakiteko: Modelos digitales del terreno / Ángel M. Felicísimo - 122 p.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 598421 m // Y: 4797279 m // Z: 112 m. Begetazioak ez du uzten bere azpian dagoena ikusten.



2012ko itzalen mapa. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Ezkerraldeko argazkiaren gune bera da. Hari esker, ustezko gotorlekuaren ingurua argi eta garbi ikus daiteke, begetaziopean badago ere.